

Mondragon Unibertsitateak Keysight mintegia antolatu du

2015/11/04

Mondragon Unibertsitateak Keysight mintegi bat antolatu du azaroaren 17rako, "Materialak neurtzeko teknologiak: karakterizazio elektromagnetikoa eta inpedantziaren neurketa" izenburupean, Garaia Berrikuntza Gunean.

Mintegian materialak neurtzeko hainbat teknologia aztertuko dira, inpedantziaren neurketa konplexutik karakterizazio elektriko eta magnetikoraino. Oso material desberdinak karakterizatu ahal izateko teknikak landuko dira. Horretarako, neurketa elektronikoa egiteko azken belaunaldiko tresneria erabiliko da.

Mintegian izena ematea doan da eta leku kopurua mugatua. Izena webgunearen bidez eman daiteke, 800 000 154 zenbakira deituz, edo, nahi izanez gero, posta elektronikoz contactcenter_spain@keysight.com, zein egunetan eta lekutara joan nahi duzun zehaztuz.

Mintegiaren agenda hau izango da:

Ordutegia

Aurkezpena

- | | |
|---------------|---|
| 09:00 – 09:10 | Aurkezpena eta ongietorria |
| 09:10 - 10:45 | Inpedantzia konplexua neurtzeko soluzio aurreratuak |
| 10:45 - 11:15 | Kafea |
| 11:15 - 12:45 | Materialen karakterizazio elektrikoa eta magnetikoa |
| 12:45 - 13:30 | Materialak neurtzearen inguruko alderdi praktikoak |
| 13:30 | Amaiera |

